

GETXO. ARCO azokea bisitetako txartelak bihar ipiniko dabez salgai, Ecuador agentzian

Veronica Muñoz |

Argazkigintzearen arteaz gozatzeko aukerea eukiko dabe getxoztar guztiek datozen egunotan. Izan be, Gorka Lejarzegi argazkilari ezagunaren argazkirik onenetariko batzuk jasoten dauzan erakusketea zabalduko dabe gaur Algortako Kultur Etxeko erakusketa aretoan, Bilbao Bizkaia Kutzak antolatuta.

Lejarzegi kazetaritzaren munduan behar egiten dau, eta berak atatarako argazkiek ederto erakusten dabe gaurkotasunaren mamia, erakusketearen arduradunen berbetan.

Gorka Lejarzegi bizkaitarra da (Mendatan jaio zan, 1967an), baina Madrilén bizi da. Azken urteotan zenbait komunikabidetarako egin dau behar, eta azkenotan Pais egunkarirako egiten dauz argazkiak. Bere lanaren kalidadeagaitik zenbait sari jaso dauz azken urteotan, besteak beste Ortega y Gasset sari ezaguna.

Erakusketea Getxoko Kultur Etxeak Algortako Urgull kalean daukan erakusketa aretoan egongo da ikusgai, urtarrilaren 26ra bitartean.


ARCO azokea bisitetako txangoa

Artearen alorretik aldendu barrik, beste alde batetik, Getxoko Kultur Etxeak ARCO, Arte Garaikidearen Nazinoarteko Azokea bisitetako txangoa eratu dau, urtero egiten dauen moduan, eta izena emoteko epea bihar zabalduko dau. Inskripzioak Ecuador bidaia agentzian egin leitezke, enpreseak Algortan daukan bulegoan.

Bidaiaren prezioa 100 eurokoa da. Horren barruan sartzen dira bidaia, autobusez, eta egonaldia Madrilgo Fox hotelean,

Gorka Lejarzegiren argazki onenak ikusteko aukerea egongo da hilaren 26a arte

Gaur zabalduko dabe erakusketea, Algortako Kultur Etxeko aretoan



EGUNKARIA

Gorka Lejarzegi Leonard Cohen abeslari eta poetari ateratako argazkia.

gozariagaz. Horrezaz ganera, azokara joateko autobusa be jarriko dabe antolatzaileek. ARCO azokea bisitetako sarre-rak, barriz, ez dagoz prezio horren barruan sartuta. Bidaian parte hartzeko epea sarrerak agortu arte egongo da zabalik.

Antzerkiaz gozatzeko aukerea

Amaitzeko, Kultur Etxeak *La Casa de Bernarda Alba* eta *Alizia*

bitxikerien lurraldean izeneko antzezlanak ikusteko sarrerak ipini dauz salgai asteen. Urtarrilaren 25ean eta 26an agertuko dabez antzezlanok Getxo Antzokian, hurrenez hurren.

La Casa de Bernarda Alba Ermuako Izarraitz konpainiak antzeztuko dau, eta Getxoko Antzerki Eskoleak antolatutako Emakumeen Bideak zikloaren barruan agertuko dabe. Iluntze-

ko 20:00etan hasiko da, Algortako antzokian, eta sarrerea 3 eurotan dago.

Beste alde batetik, *Alizia bitxikerien lurraldean* hilaren 26an ekarriko dau Getxo Antzokira Dar Dar konpainiak, ume zein helduen gozamenarako. Saio bi eratu dabez, 13:00etan gaztelaniaz eta 18:00etan euskeraz, eta sarrerak 2,40 eurotan eskuratu leitezke.

SOPELA. Andren alkarteak lanik onenak batzen dauzan liburua kaleratu eban joan dan zemendian

Olerki eta istorio laburren lehiaketetan parte hartzeko epea zabaldu dau Itzartuk

V.M. |

Sopelako Itzartu taldeak olerki eta istorio laburren lehiaketetan parte hartzeko epea zabaldu dau. Uribe Kostan bizi diran andra guztiek eukiko dabe parte hartzeko aukerea, eta betiko moduan sopolaztarrek lehentasuna eukiko dabe.

Olerkien lehiaketea bosgarren urtez gertau dau Itzartuk, eta istorio laburren egiten daben bigarren aldia da. Maila bi ezarri dabez, betiko lez, lehe-

nengoa gaztelaniazko beharretarako; eta bigarrena euskeraz idatziriko lanak hartzen dauz.

Lan guztiak jatorrizkoak izan behar dira, eta horrek esan gura dau argitaratu bakoak izan behar dirala. Halandabe, beste lehiaketearen baten aurkeztu diran lanak Sopelako lehiaketan aurkeztu leitezke, beti aurrekoetan saririk jaso ez dabe.

Sari ederrak gertau dauz Sopelako andren alkarteak aurtan. Olerki eta istoriorik onenentzat 185 euro izango dira, eta biga-

rren lekuan geratzen diranek 125 euro bana jasoko dabez. Horretaz aparte, sariak banatzeko ekitaldian egile bakoitzak bere olerkia irakurriko dau, eta hobeto egiten dauenarentzat 95 euroko sari berezia be eratu dabe Itzartukoek.

Olerkiak zein istorio laburrak bidaltzeko epea zezeilaren 14ean amaituko da. Olerkiak eta istorio laburrak Itzartuko egoitzan emongo dira, Eleizalde kaleko 6an, anbulatorioaren aurrean. Lanak martitzen goizean jasoko dira, 11:30etik 12:30era, eta egunetan, barriz, arrastian, 17:00etatik 20:00etara. Lehiaketen ganean informazio gehiago gura dauenak ondorengo telefono zenbakiak

aurkituko dauz argibide guztiak: 94 676 55 95.

Liburua kaleratu dabe

Itzartu taldeak, hain zuzen be, liburu bat kaleratu eban joan zan zemendian, *Sopelako ipuinak, kondaketak eta bertsoak* izenburupean. Orain 10 urte sortu eben Itzartu taldea, eta urteurrena ospatzeko kaleratu eben liburua.

Behar horretan olerki eta istorio laburretan lehiaketetan aurkeztutako lanik onenak batu ebezan taldeko arduradunek. Sopelako taldea 40 emakumek sortu eben, eta gaur egun 1.000 andra inguru dira Itzartuko kide, Sopelako herritarren %10 inguru.

LABURAEAN

GETXO

Arrakasta handia Areetako KZ gunearen inaugurazio egunean

Ehun lagunek baino gehiagok, erretirauek beren beregi hartzen dabe parte Areetako Konekta Zaitzez guneak antolatutako lehenengo Internet ikastaroetan. Atzo zabaldu eben ofizialki Getxoko zentroa, eta arrakasta handia izan zan. Jente asko igaro zan KZ gunetik informazio bila, eta telefonoaren bidez be getxoztarren kontsulta ugari jaso ebezan zentroaren arduradunek. Ikastaroren bat egin gura dauen guztia Areetako gunetik igaro leteke, astelehenetik barikura bitartean, goizeko 09:00etatik 13:00etara eta arrastiko 16:00etatik 20:00etara. Datorren urterako beste gune bat zabaldu gura dabe, Algortan. Informazio gehiagorako telefonoa hau da: 94 431 65 89.

Bilboko arkitekturea azkenengo 150 urteetan

Iñaki Uriarte Bilboko arkitekto ezagunak berbaldia eta diapositiben emonaldia eskainiko dau gaur Algortako Kultur Etxeko areto nagusian, *Ria de Hierro* izenburupean. 200 diapositibaren bidez, Bilboko itsasadarrean paisaje arkitektonikoetan azkenengo 150 urteetan izandako aldaketak azalduko dauz arkitekto bilbotarrak. Ekitaldia 19:30ean hasiko da, eta sarrerea doan da.

BERANGO

Edurrera joateko urteerea gertau dabe

Edurrera joateko urteerea gertau dau Berangoko Kultur Etxeak, zezeilaren 2rako. Ludotekearen bazkideentzako prezioa 6 eurokoa da; generako berangoztarrek 8 euro ordaindu beharko dabez txangoan parte hartzeko, eta kanpokoentzako prezioa 9 eurokoa da. Valdezcaray bisitauko dabe, eta izena emoteko epea urtarrilaren 27an itxiko dabe. Plazak mugatuak dira.

GORLIZ

Sukaldaritza ikastaroa gertau dau Kultur Etxeak herriko gizonentzat

Sukaldaritza ikastaroa gertau dau Kultur Etxeak Gorkizko gizonentzat. Ikastaroa doan izango da, eta izena emoteko epea zabalik dago. Informazio gehiagorako: 94 677 43 48.